

## SECCION AMENA.

## MUNDUKO ESAMESAK.

Aita zar bat zijoan beñ semearekin  
 Asto bat eramanaz bidean berekin.  
 Mutilla asto gañean, aita berriz oñez,  
 Aurrera zijoazen biyak itsegiñez.  
 Ontan pasaturikan ondotik hi gizon  
 Zarrénak besteari onela esan zion:  
*«Begirakiok, mutill orri, sasojian,  
 Oñez aita zarra ta bera astogañian.»*  
 —Aizak, dio aguréak, jachiarri larri,  
 Ez gaitean ibilli emen parragarri:  
 Aitu dek zer dioten ikusi ta onela  
 Ta uste diat nik ere arrazoi dutela.

Jechirikan mutilla astotikan bera  
 Laster agure ona igo zan gañera,  
 Ta onela zijoazen biyak pake osoan  
 Bidea desegiñaz jolas chit gozoan.  
 Andik laster zituzten andre bi arkitu  
 Ta batak besteari zion arguitu:  
*«Ikusten alden ori, ez dik lotsa aundirik,  
 Gizona asto gañean ederki jarririk,  
 Ta ume gaisoa oñez dena nekaturik  
 Aita eta astoari ezin jarraiturik.»*  
 Au aitu ta eman gabe pauso bat aurrera  
 Jechizan agurea astotik lurrera,  
 Dena lotsaturikan, beretzat pentsatzen  
 Andre ayek arrazoi izango ote zuten.

—Aita—dio mutillak esaten zarrari:  
 ¿Zerk, dio, buruausten? ¿zer pentsatzen da ari?  
 Iyo gaitezen biyak gure asto gañera  
 Ta esamesarik gabe orla joango gera.  
 Esan da egin, jarririk biyak an gañean  
 Zijoazen ederki pozez ta pakean  
 Arkitu zuten arte, iya bide erdian,  
 Tratalari bat, zeñek an béen aurrian,

Ojuka, gorrak ere aitzeko moduban  
 Zion: «*Amaika asto baziok munduban.*  
*Or ziaztik bi gizon, biyak zankoloka*  
*Beren pisubarekin astoa iya itoka.*  
*¿Zer litekek chandaka joatia besterik*  
*Aunatu bage orla aberia alperrik?»*  
 Zur egiñik gelditu ziran astodunak  
 Zer osan jakin gabe oso lotsatubak,  
 Ta astotik jechirikan aita ta semia  
 Oñez gelditu ziran bata ta bestia.

Ontan béen artian zijoazela izketan  
 Bi mutill koskor ziran agertu andik bertan,  
 Eta begiraturik aita semeari  
 Onela zion esan batak besteari:  
 «*¿Ikusi aldeak iñoiz orlako konturik?*  
*Oñez ziaztik biyak astoa or izanik;*  
*Ortarako obe uen echean ustia*  
*Ez bazitekan biar geyago aberia.*

Aspertuta agureak, ta arrazoyarekin  
 Bearbageko ainbeste berriketarekin,  
 Onela esaten diyo noizbait semeari:  
 —Aizak, len bezelase astora igoari  
 Eta *au edo ura* esan dezatela  
 Joango gaituk geroni dizaigun bezela,  
 Bada ikusiya ziok, arret edo zarret,  
 Munduko berriketik isildu ez nezaket.

*Ipui zar eder onek digu erakusten*  
*Alperrikako itzak alde batera usten.*  
*Egin beza bakoitzak bear dubena egiñ,*  
*Ibilli bedi zuzen konzienziarekiñ,*  
*Ta on da, Bat diradela, kontu egitea,*  
*Munduko esamesak ta atariko aizea.*

JOSÉ MANTEROLA.

